

**Etika Publikorako Batzordea**

**Aztergaia: 6/2022**

**ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN ERABAKIA, (...)KO UDALAK EGINDAKO JARDUKETEI BURUZ (...) UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO KEXARI BURUZKOA.**

1.- Etika Publikorako Batzordearen (EPB) posta elektronikoko postontzian jaso da (...) udal-taldeko bozeramaileak bidalitako mezu elektronikoa, (...)ko Udalak egindako jarduketei buruzkoa.

2.- Bidalitako mezuan adierazten dutenez, (...)ko Udalaren oposizioko zinegotzien eta (...)ko zenbait herritarren eskubideak urratzearen ondoriozko egoerak dira kexaren arrazoia.

3.- Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EJK aplikatzearen inguruan EAeko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek zein beste edozein instantziak egindako kontsultak ebaztea.

4.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4. apartatuaren bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

**ERABAKIA:**

**I.- Aurrekariak**

1.- 2013ko maiatzaren 28an, Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago. Kode hori sortu zen, hain zuzen ere, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan zuten konfiantza berreskuratzeko.

Horretarako, aipatutako kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkieken Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezzen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Bestalde, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea eginkizun publikoak dituenak betebeharrak etikoak eta betebeharrak sozialak bete ditzan eman zen, horrela mantendu nahi baita gizarteak guztion interesa kudeatzen duenarengan jartzen duen bidezko konfiantza, bai eta kargu publikodunek bizitza politikoan egiten duten jardunaren gardentasuna ere

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik zerbitzari publikoaren eredu adieraztea edo horri buruzko informazioa ematea; izan ere, zerbitzari publikoa zaindu eta bermatu nahi da. Horrez gain, testu arauemaile bat ere bada, lege-mailakoa, karguari dagokion funtzio publikoan aritzean bete beharreko eginkizunak ezartzen baititu.

Ildo horretan, Etika eta Jokabide Kodeak bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (kapitulu horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola bermatzeko eta gardentasuna sustatzeko asmoz. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrotasuna; lidergoia, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio hauek ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta Etika Publikorako Batzorde honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko kargu publikodunek eta beren borondatez Kodearekin bat egiten duten parekatuek nahiz Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazten dizkien gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuaren lehenengo apartatuan ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko keaxak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

## II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- (...) udal-taldeko bozeramaileak igorritako idazkian adierazten denez, Eudelek argitaratutako *“Udal Politika 2019-2023 eta Euskadiko Toki Erakundeen Legeari buruzko garapena”* Gidan jasotzen den bezala, *“Euskadiko tokiko erakundeen kalitatea lotuta dago, hain zuzen ere, haien gobernu sistemaren indartzearen aldeko apustu irmo batekin eta Udal Gobernantza Oneko eredu batekin”*.

2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko helburuetako bat erakunde eraginkor eta gardenak sortzea da, herritarren beharrei erantzungo dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak maila guztietan hartzen direla bermatzeko.

Era berean, aipatu du (...)ko Udalak 2017an onartu zuela Gardentasunaren, Gobernu Irekiaren eta Herritarren Partaidetzaren Erregelamendu Organikoa. Erregelamendu horren helburua da herritarrek udal-jardueraren gardentasunerako, informazio publikorako eta udal-kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen erabilera arautzea, banaka edo taldeka, eskubide horiek eraginkor egiteko informazioko eta partaidetzako moduak, bitartekoak eta prozedurak ezarriz, udal-gobernu ireki baten zutabe gisa.

Ondoren, aipatutako araudiak (...)ko bizilagunei aitortzen dizkien eskubideak zerrendatzen ditu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Toki Araubideari buruzko legeria orokorrean aitortutakoez gain.

Era berean, udal-ordezkariei dagozkien eskubideak eta betebeharrak adierazten ditu, bai eta izaera desberdineko erantzukizunak ere, udalbatzako zinegotzien eginkizunak betetzen direla bermatzen dutenak, Gobernu Irekia eraginkortasunez ezartzeko funtsezkotzat jotzen diren printzipio eta balioetan oinarrituta.

Haien iritziz, legegintzaldi honetan tokiko ordezkarri gisa dituzten eskubideak urratu egiten dira, eta horrek zaildu egiten du haien lana; halaber, uste dute batzuetan herritarren eskubideak ere urratu direla, eta, egoera hori askotan udalari erreklamatu dioten arren, ez dutela inolako erantzunik jaso, planteatutako arazoari irtenbidea emateko.

Kexa amaitzeko, haien eskubideak urratu diren kasuen deskribapena egin dute, 4 ataletan bilduta:

- Herritarren parte-hartzearen eta lankidetzaren printzipio orokorra ez betetzea.
- Publizitate aktiboaren printzipio orokorra ez betetzea.
- Informazioaren kalitatearen printzipio orokorra ez betetzea.
- Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipio orokorra ez betetzea.

2.- Aurreko Erabakietan (4/2015, 1/2017, 5/2019, 1/2021 eta 1/2022) adierazi den bezala, Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodeak (EJK), Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an hasierako onespena eman zionak eta 2016ko azaroaren 22an onartutako Testu Bateginean jasotzen denak, 2. zenbakian definitutako kargu publikodunentzat bakarrik hartzen du indar loteslea, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta harekiko atxikimendu indibiduala formalizatu duten unetik aurrera hartu ere. Kodearen 18.2 puntuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz: *"Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa"*.

3.- Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, zeinaren bidez erregulatzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak, ez du aldatu EJK-k, onartua izan zen unetik beretik, ezarritako aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori. Lege horren 5, 6, 7 eta 8. artikuluetan, *"kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak"* jasotzen dira, eta printzipio horiek Legea indarrean sartu ondoren dira soilik lotesleak —Legea 2014ko azaroaren lehen sartzaren indarrean—, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik lotzen dituzte, kargu publikodun horiek ofizialki izendatu eta Legearen 11. artikuluan aipatzen den *"atxikitze sistemaren"* bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren.

4.- Ondorioz, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak 4. artikuluan aurreikusten duen katalogoan sartuta dauden kargu publikoak soilik behartzen ditu EJK-k —horrenbestez, baztertu egiten dira katalogo horretan ez datozenak—, eta bakarrik izendapena formalizatzen denetik kargu-uzteak ondorioak dituen egunera arte.

5.- Aurreko puntuetan ezarritako irizpideak aplikatuz, EPB honek ez du iritzirik emateko eskumenik kargu publikodun ez diren funtzionarioen aurka eta katalogo eguneratuan sartutako kargu bat betetzeko izendatu diren baina oraindik hari banaka atxiki ez zaizkion pertsonen aurka jarritako salaketei dagokienez (11/2017 Erabakia). Bi kasuetan, EAEko sektore publikoan zerbitzuak ematen zituzten pertsonak ziren, baina ez zituzten betetzen JKIGLk eta EJKk beren preskripzioak bete behar zituzten pertsonen kolektiboa definitzerakoan ezartzen dituzten bi betekizun espezifikoak: kargu publikodun izendatzea JKIGLren 4. artikuluan aurreikusitako

katalogo eguneratuan jasotakoen artean –gaur egun, martxoaren 29ko 38/2022 Dekretuan jasotzen da–, eta EJKri banaka atxikitzea.

6.- 1/2019 Erabakian, Etika Publikorako Batzordeak adierazi zuen ez zela onartzen kargu publikodun baten aurkako salaketa baldin eta, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak formalki izendatu, dena delako kargudunak ez zuen parte hartzen EAeko sektore publikoan eta ez bazegoen kargu publikodunen Katalogo eguneratuan figura instituzional berezi eta bakarra izateagatik.

7.- Eskuartearen dugun kasuan, salaketa areago doa, zeren ez dira salatu Eusko Jaurlaritzak izendatutako kargu publikodunak, baizik eta toki-administrazio bateko hautagaiak edo haiek izendatutako konfiantzazko pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik erabat aparte daudenak. Bistan da, beraz, ez dagokigula salaketa onartzea, EPB honen jarduketa-eremua gainditzen duelako.

8.- Ez dakigu (...)ko Udalak, salaketak aipatzen duenak, EAeko sektore publikoko kargu publikodunei aplikatu behar zaienaren pareko osotasun instituzionaleko sistemarik ezarri duen, baina ez dugu alferrekotzat jotzen gogoratzea, 5/2019 Erabakian egin genuen bezala, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 35. artikuluan berariaz jasotzen duela Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek tokiko hautetsientzako jokabide-kodeak onar ditzaketela, eta horietara atxiki ahal izango direla *“udalean lan egiten duten goi-kargudunak eta zuzendaritzako langileak”* eta *“haien aplikazioaren jarraipen-, kontrol- eta ebaluazio-sistema bat”* eduki ahal izango dutela.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

#### **ERABAKIA:**

Ez onartzea interesdunak aurkeztutako salaketa, arrazoi honengatik: salaketa udaletxe bateko arduradun publiko batzuen kontra jarri da, baina pertsona horiek ez dira EJKren hartzailleen kolektiboan sartzen –kolektibo horretara mugatzen da EPB honen jarduketa-eremu subjektiboa–, eta ez daude kargu publikodunen postuen katalogo eguneratuan, zeina martxoaren 29ko 38/2022 Dekretuaren bidez onartu baitzen.

Olatz Garamendi Landa

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 29a.